

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 480/2019 Erabakia, uztailaren 23koa. Onestea Eskibelgo Kontzejuko batzorde kudeatzailearen eraketa eta hartako partaideen izendapena

2017ko azaroaren 26an egindako Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetarako hauteskundeetan ez zen hautagairik aurkeztu Eskibelgo Kontzejuan eta, beraz, haren gobernu eta administrazio organoak bete gabe geratu ziren.

Bada, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak 50. artikuluan hau xedatzen du: "Baldin eta Administrazio-Batzorderako hauteskundeak egin eta gero, aginte eta administrazio sailak bete gabe geratzen badira, Foru Aldundiak kudeaketa batzorde bat izendatu, eta honek hauteskundeak egiteko deia egin ahal izango du urtebete igaro ondoren"

Hortaz, kudeaketa batzorde bat izendatu behar da, Eskibelgo Kontzejuko Administrazio Batzarraren berezko eginkizunak bete ditzan.

Arabako kontzejuetako errejidore eta kideen hauteskundeetan 1984ko uztailaren 30eko Foru Arauak oro har xedatzen duenez bere 3. artikuluan, bizilagun guztiak dira hautagai kontzejuetako karguak betetzeko, baldin eta hautesle izateko ezaugarria izanik ez badaude hautaezintasunerako prozesuren batean sartuta.

Lehen esandakoaren arabera, kudeaketa batzordearen kideak izendatzeko, lehenengo eta behin herriko bizilagunengana jo behar da, eta horregatik, Eskibelgo Kontzejuari eskatu zitzaion proposatu zitzala Arabako Foru Aldundiak izendatzeko interesa zeukaten pertsonak, hala bailegokio, kide kudeatzaile izateko. Horretarako, 2018ko abenduaren 3an, Eskibelgo herritarrek kontzeju irekian bildu ziren eta kudeaketa batzorderako pertsona hauek izendatzeko proposatu zioten Arabako Foru Aldundiari:

- Batzordeburua: Eugenio Barredo Pérez.
- Lehenengo kidea (fede emaillea): Fernando Illana García.
- Bigarren kidea: José Luís Ezpeleta Bordatxuri.

Horregatik guztiagatik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Kudeaketa batzorde bat eratzea bete ditzan Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak Eskibelgo Kontzejuko Administrazio Batzarrari egotzitako egitekoak.

Bigarrena.- Eugenio Barredo Pérez izendatzea Eskibelgo Kontzejuko kudeaketa batzordearen lehendakari, zeinak Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak administrazio batzarretako errejidore-lehendakariari esleitzen dizkien eginkizunak beteko baititu.

Hirugarrena.- Fernando Illana García eta José Luís Ezpeleta Bordatxuri izendatzea Eskibelgo Kontzejuko kudeaketa batzordeko kide, zeinek Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak administrazio batzarretako kideei esleitzen dizkien eginkizunak beteko baitituzte.

Laugarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta berariaz jakinaraziko zaie Eskibelgo Kontzejuari eta Gasteizko Udalari.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orokaren Saileko foru diputatua

IRMA BASTERRA UGARRIZA

Lurralde Orokaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SÁENZ